Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

1727

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 24koa, Ingurumen Sailburuordetzarena, Ermuko Udalak sustatutako «Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona» izeneko planak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko erreferentzia-dokumentua egiten duena.

Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikuluaren arabera, I eranskinaren A) paragrafoan azaltzen diren planek (eta plan horien barne dago «Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona» delakoa) ingurumenean duten eraginari buruzko ebaluazio bateratua beharko dute, plangintzako lehen faseetan alternatiba egokienak aukeratzeko eta ingurumenean izango duten eraginaren analisia eta balorazioa egiteko, jarduera desberdinen ondorio metagarri eta sinergikoak kontuan hartuz.

Era berean, «Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona» izeneko plana hainbat planek eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen aplikazio-eremuan dago. Lege horren 9. artikuluan ezartzen denez, ingurumeneko organoak ezarriko ditu ingurumenaren iraunkortasunari buruzko txostenaren xehetasun-maila eta zehaztasun-gradua erreferentzia-dokumentu bat emanez, eragindako herri-administrazioak eta publiko interesduna identifikatu eta haiei galdetu eta gero. Dokumentu horretan, gainera, kasu bakoitzean aplikatu beharreko ingurumen irizpide estrategikoak, ingurumen helburuen adierazleak eta iraunkortasun printzipioak adieraziko dira.

Ermuko Udalak 2008ko azaroaren 11n hasi ditu izapideak «Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona» delakoak ingurumenaren gainean izango duen eraginari buruzko erreferentzia-dokumentua egiteko.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren arabera, Ingurumen Sailburuordetzari dagokio plan eta programek ingurumenean izango duten eraginari buruzko txostenak egiteko eskumena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

1727

RESOLUCIÓN de 24 de febrero de 2009 de la Viceconsejería de Medio Ambiente por la que se formula el documento de referencia para la Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental de la «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power» promovida por el Ayuntamiento de Ermua.

De conformidad con el artículo 41 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, los planes contemplados en el apartado A) del anexo I, entre los que se encuentra la «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power», quedan sometidos al procedimiento de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental con el objetivo, entre otros, de introducir en las primeras fases del proceso de planificación, y en orden a la elección de las alternativas más adecuadas, el análisis y valoración relativo a las repercusiones que sobre el medio ambiente se deriven de la aplicación del plan, teniendo en cuenta los efectos acumulativos y sinérgicos derivados de las diversas actividades.

Igualmente, la «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power» se encuentra en el ámbito de aplicación de la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, estableciéndose en el artículo 9 de la citada norma que el alcance, nivel de detalle y el grado de especificidad del informe de sostenibilidad ambiental se determinará por el órgano ambiental, tras identificar y consultar a las Administraciones públicas afectadas y al público interesado, mediante la emisión de un documento de referencia que incluirá además los criterios ambientales estratégicos e indicadores de los objetivos ambientales y principios de sostenibilidad aplicables en cada caso.

El Ayuntamiento de Ermua, con fecha de 11 de noviembre de 2008, ha iniciado los trámites para la emisión del documento de referencia en relación con la «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power».

De conformidad con el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, corresponde a la Viceconsejería de Medio Ambiente la competencia para la emisión de los informes de Impacto Ambiental en relación con los Planes y Programas.

Espedienteko agiriak aztertu ondoren eta zenbait plan eta programak ingurumenean dituzten ondorioak ebaluatzeko apirilaren 28ko 9/2006 Legearen (1) 9. artikuluan aurreikusitako izapideak betez, Ingurumen Sailburuordetzak honakoa

EBATZI DU:

1.– Ingurumen ondorioetarako soilik, Ermuko udalak sustatutako «Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona» izeneko planaren erreferentzia-dokumentua egitea.

2.– Txostena honakoa da:

2.1.– Aurrekariak.

Ermuko HAPOren Aldaketaren helburua egikaritza-unitate berri bat sortzea da, «Lomi Power» 17 EU izenekoa eta 10.593 m^2 azalera izango duena. Gaur egun, etorkizunean EU izango denaren zati bat Lomi Power enpresako instalazioek, Zeharkalea kaleko 1. zenbakiak eta beste instalazio txiki batzuek okupatzen dute. Horretaz gain, N-634 errepideak esparrua zeharkatzen du.

Aldaketak hurrengo ekintzak aurreikusten ditu:

1) Sailkapenaren eta kalifikazioaren aldaketa. Egun Lurzoru Urbanizaezina bezala sailkatutako 4.742 m^{2}ko lursaila hiri-lurzoru bezala sailkatuko da. Eremu horretan, 5.783 m^{2}ko beste hiri-lurzoru batekin, zati batean «bide-sistema orokorra» bezala sailkatuta dagoena, kalifikazioz aldatuko dira eta Hiri-Etxebizitza Lurzorua izatera igaroko dira.

2) Egikaritza-unitate berri bat sortzea. Etxebizitzetarako hiri-lurzoru baten egikaritza-unitate berri bat sortuko da, «Lomi Power» 17 EU deiturikoa. Mugarritutako esparruak 10.525 m^{2}ko azalera bat du eta kalifikazioz aldatzen diren eremuek (aurreko puntuan aipatutakoek, alegia), eta N-634 errepidearen iparraldeak kokatutako hiri-lurzoruko eremu txiki batek osatzen dute.

Etxebizitza-garapenerako proposamenean etxebizitza-eraikuntza bat proposatzen da. Horretan 58 etxebizitza aske, 18 etxebizitza tasatu eta 41 BOE etxebizitza eraikiko dira. Aldi berean, lur azpiko aparkaleku bat egongo da, bi edo hiru sotoetan. 357 aparkaleku-unitate sortzea aurreikusten da eta horietatik 113 aparkaleku publiko birakari bat izatera zuzenduko dira.

Gipuzkoako Etorbidetik eta Zeharkalea kaletik sartuko da eremura. N-634 errepidearen azpitik lurrazpiko ibilgailuetarako eta oinezkoentzako igarobide bat eraikiko da.

Plazek eta eremu libreek 1.744 m^2 inguru okupatuko dituzte. Beste alde batetik, eremu libreetako zona bat mantenduko da, ezpondei eta lurzoruaren sestra-topalekuari dagokiena (4.790 m^2).

Una vez examinada la documentación del expediente, y en cumplimiento del trámite previsto en el artículo 9 de la Ley 9/2006 (1), sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, la Viceconsejería de Medio Ambiente

RESUELVE:

1.– Formular, únicamente a efectos ambientales, el documento de referencia de «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power» promovida por el Ayuntamiento de Ermua.

2.– Establecer dicho Informe en los siguientes términos:

2.1.– Antecedentes.

La Modificación del PGOU de Ermua tiene como objetivo la creación de una nueva unidad de ejecución, UE 17 «Lomi Power», con una superficie de 10.593 m^2. En la actualidad la futura UE se encuentra ocupada en parte por las instalaciones de la empresa Lomi Power, el n.º 1 de la calle Zeharkalea y otras instalaciones menores, además está atravesada por la N-634.

La modificación contempla las siguientes actuaciones:

1) Cambio de clasificación y calificación. Se clasifica como suelo urbano un terreno de 4.742 m^2 actualmente clasificado como Suelo No Urbanizable. Este espacio, junto con otro terreno urbano de 5.783 m^2, calificado en parte como «sistema general viario», cambian de calificación, pasando a denominarse Suelo Urbano-Residencial.

2) Creación de una nueva unidad de ejecución. Se crea una nueva unidad de ejecución de suelo urbano residencial, llamada U.E. 17 «Lomi-Power». El ámbito delimitado tiene una superficie de 10.525 m^2 y está formado por los terrenos que cambian de calificación (mencionados en el punto anterior), y por un pequeño espacio de suelo urbano, al norte de la carretera N-634.

La propuesta de desarrollo residencial se propone la configuración de un edificio residencial que albergará 58 viviendas libres, 18 viviendas tasadas y 41 viviendas de VPO, y contará con aparcamiento bajo rasante, en dos o tres sótanos. Se prevé la creación de 357 unidades de aparcamiento, 113 de las cuales serán destinadas a parking rotatorio público.

Se accederá a la zona desde las calles Avenida de Gipuzkoa y Zeharkalea. Se construirá un paso subterráneo rodado y peatonal bajo la carretera N-634.

Las plazas y los espacios libres ocuparán unos 1.744 m^2. Por otro lado, se mantiene una zona de espacios libres correspondiente a taludes y encuentro con la rasante de terreno (4.790 m^2).

2.2.– Egindako kontsultak.

2008ko azaroaren 16an, iragarki bat argitaratu zen prentsan, publiko interesduna identifikatzeko eta kontsultatzeko, eta publiko horren eskura jarri zen espedienteko dokumentazio guztia, bai Ingurumen Sailburuordetzaren egoitzan eta baita Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko web orrian ere.

Interesatu gisa akreditatzeko eta alegazioak aurkezteko epea 2008ko abenduaren 23an amaitu zen. Izapide horretan inor ez da publiko interesatu gisa akreditatu.

Era berean, Ingurumen Sailburuordetza honek ondorengo erakunde hauei egin die kontsulta:

– Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

– Uraren Euskal Agentzia.

– Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako Zuzendaritza.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusia.

– Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintzako Zuzendaritza.

– Ihobe Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.

– Ekologistak Martxan Elkartea.

Arauzko epea bukatuta, Eusko Jaurlaritzaren Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzatik eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritza Nagusitik, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzatik eta Ihobetik proposamenak jaso dira.

Biodibertsitatearen Zuzendaritza: dagoen hariztiaren gainean eragina du, hondeaketetatik datozen lur-

2.2.– Consultas realizadas.

Con fecha 16 de noviembre de 2008, se publicó anuncio en prensa para identificación y consulta al público interesado, poniendo a disposición de éste la documentación del expediente tanto en la sede de la Viceconsejería de Medio Ambiente como en la página web del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

El plazo para acreditarse como público interesado y para presentar alegaciones finalizó el 23 de diciembre de 2008. En dicho periodo, nadie se ha acreditado como público interesado ni se han presentado alegaciones.

Asimismo, esta Viceconsejería de Medio Ambiente realizó consultas a los siguientes organismos:

– Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco.

– Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

– Dirección de Atención de Emergencias del Gobierno Vasco.

– Agencia Vasca del Agua.

– Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco.

– Dirección de Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

– Dirección de Calidad Ambiental del Gobierno Vasco.

– Dirección de Salud Pública del Gobierno Vasco.

– Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Montes y Espacios Naturales de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección General de Agricultura y Ganadería de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Dirección de Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe.

– Ekologistak Martxan.

Finalizado el plazo reglamentario, se ha recibido respuesta de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco, Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental, Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco e Ihobe.

Dirección de Biodiversidad: incide sobre la afección al robledal existente, el tratamiento de los excedentes de

hondakinen tratamendua eta obrek eragindako zonak berriz landatzea.

Ihobe: kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak eta instalazioak jasaten edo jasan dituzten lurzoru batzuk daudela adierazten du; 48034-00028 kodea duen lursaila, motorreko ibilgailuetarako zati, pieza eta osagarri ez elektrikoen fabrikazio-jarduera jasan duena.

Aurretik jasotako kontsulten erantzunak Ermuko HAPOren Aldaketa Puntuala, Lomi Power izeneko 17. egikaritze-unitatea sortzeari dagokiona eta Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren ikerketa egiterakoan kontuan izan beharko dira.

2.3.– Aldaketari aplika daitezkeen ingurumen-irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak.

Aldaketa egiteko, nagusiki Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020); Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan (2007-2010); Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean; ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuan. Dekretu horren bidez, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onartzen da; eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean jasotako irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak oinarritzat hartuko dira.

Zehazki, hurrengo ingurumen-irizpideak ingurumen-irizpide estrategikoak kontsideratuko dira, aldaketak ingurumenean izan ahal dituen eragin garrantzitsuekin lotura dutelako eta horiengatik ingurumen-ebaluazioa egin delako:

1) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea (2).

– Dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzeari lehentasuna eman behar zaio. Ahalegin berezia egin behar da nekazaritzako lurzoruak eta lurzoru naturalak babesteko (3).

– Herriaren jatorrizko nukleoetan eraikitako eta urbanizatutako ondarearen biziberritzea eta etxebizitza hutsen erabilera hazkunde berriaren aurretik lehenetsi behar dira (4).

– Lurzoru urbanizaezina birkalifikatu aurretik lur kutsatuen berreskuratzea lehenetsi behar da. Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratu behar dira, hiriplangintzak erabilera edo jarduera berri bat aurreikusten duenean edo, modu subsidiario batean, aurreikusten ez duenean (5).

– Hirietan bereizketa eta sakabanatzea saihestea (6), mugikortasun-sormena murriztuz eta ingurumenari dagokionez baliotsuak diren baliabideak babestuz.

– Lurzoruaren zigilatzea murriztea (7), hirigintzarako lurraren erabileran intentsitatea bermatzean (8).

2) Hiri-nukleoen ingurumen-kalitatea hobetzea, berdeguneak sustatuz eta handituz (9).

tierras procedentes de las excavaciones y las revegetaciones de las zonas afectadas por las obras.

Ihobe: señala como suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes, la parcela con el código 48034-00028 que ha soportado la actividad de fabricación de partes, piezas y accesorios no eléctricos para vehículos de motor.

Las respuestas a consultas previas recibidas. deberán tenerse en cuenta en la elaboración de la «Modificación del PGOU de Ermua U.E. 17 Lomi Power» y en su estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental.

2.3.– Criterios ambientales estratégicos y objetivos ambientales aplicables a la modificación.

Se tomarán como base fundamental para la elaboración de la modificación los criterios estratégicos y objetivos ambientales contenidos en la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, en el Programa Marco Ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2010, en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, en el Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo y en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

En concreto, los siguientes criterios ambientales, en tanto en cuanto guardan relación con los probables efectos significativos de la modificación sobre el medio ambiente y que lo han hecho merecedor de evaluación medioambiental, tendrán la consideración de criterios ambientales estratégicos:

1) Utilizar racional e intensivamente el suelo (2).

– Priorizar la utilización de suelos ya artificializados, especialmente preservando el suelo agrario y natural (3):

– Haciendo prevalecer la regeneración del patrimonio construido y urbanizado en los núcleos originarios de la localidad y la utilización de las viviendas vacías, sobre el nuevo crecimiento (4).

– Priorizando la recuperación de suelos contaminados antes de recalificar suelo no urbanizable. Recuperando suelos potencialmente contaminados en los que el planeamiento urbanístico sí prevé un nuevo uso o actividad o, subsidiariamente, en los que no lo prevé (5).

– Evitar la segregación y dispersión urbana (6), reduciendo la generación de movilidad y preservando los recursos ambientalmente valiosos.

– Reducir el sellado del suelo(7), garantizando una intensidad mínima de uso del suelo para fines urbanísticos (8).

2) Mejorar la calidad ambiental de los núcleos urbanos, promocionando y aumentando las zonas verdes (9).

3) Energia-aurrezpena, energiaren eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea (10). Horretarako dagozkion urbanizaziorako eta eraikuntzarako Udal Ordenantzen bidez, antolamendurako neurriak arautuko eta hiri-instalazio kolektibo edo nagusiak aurreikusiko dira eta, horrekin batera, beren norainokoa zehaztuko da bai materialari (girotze-instalazioak, etxeko ur beroa ematea, hiri-hondakinenak biltzea, ibaiurak eta ur grisak berriz erabiltzeko bilketa, arazketa eta biltegiratzea) bai espazioari (eremua, sektorea, auzo jakin batzuetako alde jakin batzuk, etab) dagokionez.

4) Hondakinen ekoizpena murriztean eta berriz erabiltzean eta birziklapenaren sustapenean oinarritutako hondakinen kudeaketa bermatzea.

5) Pertsonen mugikortasun-eskaerari erantzuteko, oinez ibiltzea, bizikleta hartzea eta garraio kolektiboa erabiltzea sustatzea (11). Motorrik gabeko mugikortasuna eta garraio publikoa sustatzea (12).

6) Kalitate akustikoko helburuak betetzea: zarata-maila altuak jasaten duen biztanleria-kopurua murriztuz, 37/2003 Legea (13) eta 1367/2007 Errege Dekretua (14) lurralde-planifikazioan eta planifikazio urbanistikoan aplikatuz, zonakatze akustikoari dagokionez.

7) Ur garbia bermatzea (15), hondakin-uren tratamenduak isuriari eta inguru hartzaileari egokituz.

8) Landaredia kontserbatzen dela zaintzea, bereziki, basoak, landare-multzoak, hesiak, eta ertzetako landaredia (16).

9) Dibertsitate biologikoaren galera gelditzea habitat eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra lehengoratuz eta babestuz; horretarako, Espazio Natural Babestuetatik kanpo dauden eremuen nahikotasun, koherentzia eta konektibitateari arreta jarri behar zaie (17).

10) Paisaia-faktorea udal-plangintzaren barruan sartzea, bere babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatuz, Paisaiaren Europako Hitzarmenak ezartzen duen bezala (18).

Aldaketak modu esplizituan ingurumen-irizpide estrategiko horiek guztiak nola eta zein neurritan garatzen dituen identifikatu behar du.

2.4.– Ingurumen-iraunkortasun txostenaren hedadura, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean aipatzen den ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuari (IEEB) buruzko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan adierazitako ingurumenaren gaineko ebaluazio bateraturako azterlanean sartuta dagoela ulertu behar da.

3) Fomento del ahorro energético, la eficiencia y el uso de energías renovables (10).-Es aconsejable que se prevea, por medio de las correspondientes Ordenanzas municipales de urbanización y edificación, la regulación de medidas de ordenación e implantación de instalaciones urbanas colectivas o centrales, siempre que se considere que el grado de eficiencia general de las mismas es mayor que el de otras posibles, con la consiguiente determinación de su alcance tanto material (instalaciones de climatización, abastecimiento de agua caliente sanitaria, recogida de residuos urbanos, recogida, depuración y almacenamiento para la reutilización de aguas pluviales y grises, etc.) como espacial (área, sector, determinadas partes de determinados barrios, etc.).

4) Garantizar una gestión de residuos basada en la minimización de su producción y el fomento de la reutilización y el reciclaje.

5) Gestionar la demanda de movilidad de las personas reconduciendo el reparto modal hacia el caminar, la bicicleta y el transporte colectivo (11). Se fomentará la movilidad no motorizada y los medios de transporte públicos (12).

6) Cumplimiento de los objetivos de calidad acústica: disminuyendo la población expuesta a niveles altos de ruido mediante la aplicación de la Ley 37/2003 (13) y del Real Decreto 1367/2007 (14), en la planificación territorial y urbanística, en cuanto a zonificación acústica.

7) Garantizar un agua limpia (15), adecuando los tratamientos de las aguas residuales al vertido y al medio receptor.

8) Velar para que la vegetación sea conservada, especialmente los bosques, los conjuntos vegetales, los setos y la vegetación ribereña (16).

9) Detener la pérdida de diversidad biológica mediante la protección y la restauración del funcionamiento sostenible de los hábitats y ecosistemas, centrándose en proteger la suficiencia, coherencia y conectividad de áreas fuera de Espacios Naturales Protegidos (17).

10) Integración del factor paisaje en el planeamiento municipal, impulsando su protección, gestión y ordenación, tal y como establece el Convenio Europeo del Paisaje (18).

La modificación debe identificar de forma explícita cómo y en qué medida desarrolla todos y cada uno de estos criterios ambientales estratégicos.

2.4.– Amplitud, nivel de detalle y grado de especificación del informe de sostenibilidad ambiental.

El informe de sostenibilidad ambiental al que se refiere la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente debe entenderse comprendido en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental al que se refiere el Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

Beraz, aldaketak ingurumenean duen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlana izango du eta ondorengo araudian ezarritako gutxieneko edukiak eta egitura jasoko ditu: uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskina eta 9/2006 Legearen I. eranskina.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioko azterlaneko atal bakoitzean jasotzen diren alderdien edukia eta norainokoa, aldaketak sustatzen dituen esparruari eta jarduera zehatzei berariaz dagozkienak izango dira.

Aurrekoarekin bat etorriz, ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanean garatzen diren atalek ondoko metodologi eskema hau izan behar dute:

1) Aldaketaren helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko beharrezkotzat jotzen diren bideak deskribapena.

2) Beste plan eta programa batzuekiko elkarreraginen analisia.

3) Aldaketak eragina izango duen eremuko ingurumena aztertu, diagnostikatu eta baloratzea.

4) Teknikoki arrazoizkoak diren alternatiben ingurumen-azterlana. Aukeratu den konponbidearen justifikazioa.

5) Aldaketak izan ditzakeen eraginak identifikazioa eta balorazioa.

6) Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsaziozkoen proposamena.

7) Aldaketaren eraginak gainbegiratzeko programa.

8) Laburpen-dokumentua.

9) Dokumentazio grafikoa.

Aztergai dugun dokumentuaren ezaugarriak eta egin ditugun kontsultetatik aterarako ondorioak kontuan izanda, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren azterlanak aipatutako atalak garatu behar izango ditu, ondoren adierazten den zabalera eta zehaztasun-mailarekin:

2.4.1.– Aldaketaren helburu estrategikoen eta helburu horiek lortzeko kontsideratutako alternatiben deskribapena.

Atal honetan aldaketaren helburuak jaso behar dira, gertakarietatik abiatuz eta horien existentzia eta ezaugarriak diren moduan identifikatu behar dira. Era berean, horiekin bat datozen eta egin diren proposamenak justifikatzeko aukera eman behar dute, modu labur baino egoki batean. Ingurumen-helburuak bereziki azpimarratu behar dira, eta erreferentziako dokumentu honen 2.3 atalean adierazitako ingurumen-irizpide estrategikoetan nola sartu diren modu esplizituan adieraziko da.

Por tanto, en la modificación debe integrarse un estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental que se ajuste, en cuanto a sus contenidos mínimos y estructura, a lo dispuesto en el anexo al Decreto 183/2003, de 22 de julio, y a lo establecido en el anexo I de la citada Ley 9/2006, de 28 de abril.

El alcance y contenido de los aspectos que recoge cada apartado del estudio de evaluación de impacto ambiental debe ser específico del ámbito y de las actuaciones concretas que la modificación promueve.

De acuerdo con lo anterior, los apartados que se desarrollen en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental deben responder al siguiente esquema metodológico:

1) Descripción de los criterios estratégicos de la modificación y de las alternativas consideradas para alcanzar dichos criterios.

2) Análisis de las interacciones con otros planes y programas.

3) Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por la modificación.

4) Examen ambiental de las alternativas técnicamente razonables. Justificación de la solución adoptada.

5) Identificación y valoración de impactos de la modificación y de sus diferentes actuaciones.

6) Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias.

7) Programa de supervisión de los efectos de la modificación.

8) Documento de síntesis.

9) Documentación gráfica.

Dadas las características del documento que se evalúa y a la vista de los resultados de las consultas realizadas, esta Viceconsejería de Medio Ambiente estima que el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental debe desarrollar los apartados mencionados con la amplitud y nivel de detalle que se expresan a continuación:

2.4.1.– Descripción de los criterios estratégicos de la modificación y de las alternativas consideradas para alcanzar dichos criterios.

En este apartado deben recogerse los fines de la modificación que, partiendo de hechos cuya existencia y características deben identificarse tal y como son, permitan justificar, sucinta pero suficientemente, las propuestas acordes y proporcionadas a éstos. Se debe hacer especial hincapié en los objetivos medioambientales, señalando explícitamente de qué manera se han incorporado los criterios de la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2020) y del Programa Marco Ambiental 2007-2010, señalados en el apartado 2.3 de este Documento de Referencia.

Ingurumen alorreko irizpide estrategiko horiek aldaketa lantzean txertatuta, ingurumenean sortutako kalteei aurre hartu nahi zaie, ondoren konpontzen ibili beharrean. Horrela, garapen iraunkorra sustatu eta neurri zuzentzaile eta konpentsaziozkoen beharra gutxitu nahi da. Hori dela eta, aukerak (kokapeneko edota garapeneko edo beren ekintzetako edota aldi baterako eremuen proposamenen alternatibak) bilatu behar dira aldaketan aurreikusitako helburuak, eta batez ere, aipatutako ingurumeneko irizpide estrategikoak beste era batera garatzeko.

Aldaketako proposamenak, gutxienez, lurzoruaren antolamenduko eta proposatutako ekintzen kokapeneko alternatiba posibleak jaso behar ditu, horiek irrazionalak direla frogatu ezik, aurretik ezarritako bideragarritasuneko irizpide teknikoak betetzea ezinezkoa dela kontuan hartuta.

2.4.2.– Beste plan eta programekin dituen elkarrekintzen analisia.

Aldaketak aplikazio-eremu bera duten beste planekin duen ingurumen-bateragarritasuna justifikatu behar da. Ingurumen-inpaktuaren gaineko baterako ebaluazioa izan duten hierarkia maila altuago batean dauden planak identifikatuko dira, eta horrela izanez gero, aldaketak aipatutako ebaluazioetan ezarritako jarraibideekin duen bateragarritasuna aztertuko da.

Beste batzuen artean, hurrengo plan eta programekin duen bateragarritasuna aztertuko da, eta egokia bada, baita ingurumen-inpaktuaren gaineko ebaluazio bateratuarekin duena ere:

a) EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

b) Eibarko (Debarrena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana.

c) EAEko Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

d) Bizkaiko Errepideen Arloko Plana.

e) Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

f) Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planak 2008-2012.

Ingurumen-alorreko bateraezintasunik baldin badago goragoko maila bateko plan eta programekiko, baliogabetu edo ordeztu egin behar dira hartutako erabakiak.

2.4.3.– HAPOren aldaketak eragiten duen eremuaren ingurumen-analisia, diagnostikoa eta balorazioa.

Lurralde-eremu horretako ingurumenaren egoerari buruzko alderdi garrantzitsuenak aipatu behar dira, aurreikusitako erabileretarako duen harrera-ahalmena eta aldaketa aplikatu ezean egoera horrek izango duen bilakaera; eraginik handiena jasango duten aldeetako ezaugarriak azpimarratuko dira.

La integración de estos criterios ambientales estratégicos en la elaboración de la modificación busca incidir en el principio de prevención frente a la corrección de efectos, impulsando un desarrollo sostenible que permita, en consecuencia, limitar la necesidad de establecer medidas correctoras y/o compensatorias. Por ello, deben proponerse alternativas (propuestas de localización y/o desarrollo o de sus actuaciones y/o de escenarios temporales) que busquen desarrollar de manera distinta los objetivos previstos en la modificación, y en especial los criterios ambientales estratégicos señalados.

La propuesta de Modificación debe contener, cuando menos, posibles alternativas de ordenación del suelo y de localización de las actuaciones propuestas, salvo que se motive suficientemente lo irracional de las mismas, habida cuenta de la imposibilidad de que éstas cumplan con los criterios técnicos de viabilidad, que previamente hayan sido establecidos.

2.4.2.– Análisis de las interacciones con otros planes y programas.

Debe justificarse la compatibilidad ambiental de la Modificación con otros planes cuyo ámbito de aplicación sea coincidente. Se identificarán los planes jerárquicamente superiores que han sido sometidos a evaluación conjunta de impacto ambiental y, en su caso, se analizará la compatibilidad de la Modificación con las directrices establecidas en dichas evaluaciones.

Entre otros, se analizará la compatibilidad con los siguientes planes y programas y, en su caso, con su evaluación conjunta de impacto ambiental:

a) Directrices de Ordenación del Territorio.

b) Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Eibar (Bajo Deba).

c) Plan Territorial Sectorial Agroforestal y del Medio Natural de la CAPV.

d) Plan Sectorial de Carreteras de Bizkaia.

e) PTS de Suelo para la promoción Pública de Viviendas.

f) Plan Vasco de Lucha contra el Cambio Climático 2008-2012.

La existencia de incompatibilidades de índole ambiental con planes y programas jerárquicamente superiores exigirá la anulación o sustitución de las actuaciones correspondientes.

2.4.3.– Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por la modificación del PGOU.

Deben señalarse los aspectos relevantes de la situación ambiental actual del ámbito, que determinan su capacidad de acogida para los usos previstos en la modificación, y su probable evolución de no aplicarlo, destacando, además, las características de las zonas que probablemente vayan a ser afectadas significativamente.

Horretarako, eremuaren balioa identifikatu behar da. Kasu honetan, eremuak aldaketa jasan behar duten sektoreez gain, jarraian jasotzen diren ingurumen-intereseko eremuak ere hartu beharko ditu barne, beharrezko xehetasun mailarekin, hurrengo baliabideen eta ingurumen-interes bereziko eremuen analisiaren bidez, beren espazio-mugak, bere babes-helburuak eta erabilera-eremua, egonez gero, identifikatuz:

1) Mehatxatutako flora eta faunako espezieen banaketa-eremuak. Indarrean dagoen kudeaketa-planik ez duten mehatxatutako espezieen kasuan, arreta lehentasuneko banaketa zonetan (19), interes bereziko eremuetan (20) edo puntu sentikorretan (21) jarriko da. Esparrua Lacerta schreibei (Schreiber muskerrerako) eta Bas-igel Iberiarrerako lehentasuneko banaketa-zona da. Espezie horien gaineko afekzio posibleen irismena aztertu beharko da.

2) Dauden landare-komunitateak, eta zehazki, dauden interes komunitarioko habitatak. Dauden landare-komunitateen ezaugarriak eta tamaina zehaztasun gehiagorekin deskribatu beharko dira, planak eragindako landare-mota bakoitzaren azalera, bere ezaugarriak, aleen heldutasuna, kontserbazio-maila eta egitura-konplexutasuna zehaztuz eta baita sailkatutako edo babestutako espezieen presentzia eta horien balio ekologikoa ere adieraziz. Baliotsuenak diren osagaiak nabarmendu beharko dira. Horien kartografia egingo da, eskala egokian, dauden landare-komunitateen kontserbaziorako balio erlatibo handienaren arabera. Esparru honetan hego-hegaleko hostozabaletako zuhaiztien eremuari jaramon handia egingo zaio.

3) Lekuaren esparruan, interes konektorea duten paisaiak identifikatzea iradokitzen da, korridore ekologikoen eskala anitzeko sare baten garapena posiblea izan dadin. Lekuko korridore horien helburuak interes konektorea duen paisaiako elementuak identifikatzea eta babestea, horien gaineko inpaktuen prebentzioa egitea eta horien arteko konektibitatea hobetzea izango lirateke.

4) Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.l artikuluak Uraren Euskal Agentziaren funtzioen artean, funtzio bat, izaera loteslea duena, hasierako onespenaren aurretik plan orokorren, arau subsidiarioen, zati-planen eta plan berezien berri ematea dela ezartzen du. Txosten hori Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko lanen eta udalerriaren plangintzaren arteko harremanari buruzkoa izango da esklusiboki. Ermuko Udalak Uraren Euskal Agentziari aipatutako txostena igortzea eskatu beharko dio.

5) Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7.k artikuluak Uraren Euskal Agentziaren funtzioen artean, funtzio bat, izaera loteslea duena, hasierako onespenaren ondoren plan orokorren, arau subsidiarioen, zati-planen eta plan berezien berri ematea dela ezartzen du. Txosten hori udalerriaren plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko harremanari buruzkoa izango esklusiboki. Ermuko

Para ello, se debe identificar el valor del ámbito que, en este caso, debe abarcar además del ámbito de la modificación las áreas de interés ambiental recogidas a continuación que excedan éste con el grado de detalle suficiente, mediante el análisis de los siguientes recursos y espacios de especial interés ambiental, identificándose sus límites espaciales, sus objetivos de protección y régimen de uso si lo hubiera:

1) Áreas de distribución de especies de flora y fauna amenazada. Para las especies amenazadas sin plan de gestión vigente deberá centrarse la atención en la Zonas de Distribución Preferente (19), Áreas de interés especial (20) o Puntos Sensibles (21), el ámbito es zona de distribución preferente para Lacerta schreibei (lagarto verdinegro) y Rana ibérica (rana patilarga). Se deberá analizar el alcance de las posibles afecciones sobre estas especies.

2) Las comunidades vegetales presentes, y concretamente los hábitats de interés comunitario presentes. Deberán describirse con mayor detalle las características y tamaño de las comunidades vegetales presentes, detallando la superficie de cada clase de vegetación afectada por la modificación, sus características, madurez de los ejemplares, grado de conservación y complejidad estructural, presencia de especies catalogadas o protegidas y su valor ecológico. Deberán destacarse los componentes más valiosos, que serán cartografiados a escala adecuada, en función del mayor valor relativo para la conservación de las comunidades vegetales presentes. En este ámbito se prestará especial atención a la zona de bosquetes de frondosas de la ladera sur.

3) Se sugiere que se identifiquen los elementos del paisaje de interés conector en el ámbito local, de forma que sea posible el desarrollo de una red multiescalar de corredores ecológicos. Los objetivos de estos corredores locales consistirían en la identificación y conservación de elementos del paisaje de interés conector, la prevención de impactos sobre éstos y la mejora de la conectividad entre ellos.

4) El artículo 7.l de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas establece que entre las funciones de la Agencia Vasca del Agua se encuentra la de informar con carácter vinculante los planes generales, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales antes de su aprobación inicial. Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre las obras de interés general de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el planeamiento municipal. El Ayuntamiento de Ermua deberá solicitar la emisión de dicho informe a la Agencia Vasca del Agua.

5) El artículo 7.k de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas establece que entre las funciones de la Agencia Vasca del Agua se encuentra la de informar con carácter vinculante los planes generales, normas subsidiarias, planes parciales y planes especiales después de su aprobación inicial. Este informe versará en exclusiva sobre la relación entre el planeamiento municipal y la protección y utilización del dominio público hidráulico.

Udalak aldaketaren hasierako onespenaren ostean Uraren Euskal Agentziari aipatutako txostena igortzea eskatu beharko dio.

Aldaketaren esparruen urrakortasun-arriskua identifikatu behar da eta horretan aurreikusitako ekintzetarako garrantzitsuak diren eta bertan dauden ingurumenarazoak adierazi behar dira, hurrengoa kontuan izanik:

1) 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren (22) 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, aldaketak arrisku naturalen mapa bat jaso behar du. Aldaketaren helburu den esparruaren kasuan, maldei erreferentzia egingo zaie, hegoaldean % 50eko malda dutenei eta baita arrisku geoteknikoei ere. Ekintza-esparruaren higaduraren magnitudea baieztatu beharko da, arrisku-mapan jaso ahal izateko.

2) Kutsatutako lurzoruak daudela baieztatu da: esparruan kokatzen den Lomi Power enpresa «lurzorua kutsatu dezakeen jarduera» bezala sailkatuta dago eta bere lursaila Kutsatuta Egon Daitezkeen Lurzoruen Inbentarioaren barruan sartzen da, 48034-00028 zenbakiarekin. Horretaz gain, ekintza-esparruaren barruan beste lurzoru kutsatutako lursail bat aurkitu da, Inbentarioan 48034-00023 zenbakia duena. Hori N-634 errepidearen beste aldean kokatzen da. Lurzoruaren kutsaduraren prebentzio eta zuzenketarako otsailaren 4ko 1/2005 Legea aintzat hartuz, lurzoru kutsatu edo hondatu bat egoteak lurzoru horretarako erabilera baten esleipena baldintzatu dezake edota izan behar duen erabilera beraren funtzioak aurrera eramateko ahalmena horri itzultzera zuzendutako neurri zuzentzaileen beharra, edo baita, lurzoruaren baldintzak bere aurreko egoerara zuzendutako neurrien beharra ere. Kutsadura sortu izan dezakeen jarduera edo instalazio bat jasaten edo jasan duen lurzoru baten kalifikazio-aldaketa eginez gero, lurzoruaren kalitatearen aitorpen-prozedurari hasiera eman beharko zaio, 1/2005 Legearen 17.1.d) atalean ezartzen den bezala (23).

Beste alde batetik, lurzoru batean hondeaketa-eragiketak edo lur-mugimenduak aurrera eramaterakoan kutsadura-zantzuak hautematen badira, ekintza horren arduradun zuzenak derrigorrez dagokion Udaletxeari eta Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organo eskudunari jakinarazi beharko dio. Kontsiderazio hori aldaketaren determinazioen barruan sartuko da eta horren garapeneko dokumentuetan eta proiektuetan aplikatu ahalko da.

3) 37/2003 Legeak (24) eta 1367/2007 Errege Dekretuak (25) xedatutakoari jarraiki, Aladaketak, modu esplizituan, eremuaren zonakatze akustikoari dagokion mugaketa barne hartuko du. Aipatu zonakatzeak lehen aipatutako 1367/2007 Errege Dekretuaren 5. artikuluan adierazitako metodologia jarraitu beharko du. Aipatu zonakatzea eginda, kalitate akustikoko helburu aplikagarriak aipatutako 1367/2007 Errege Dekretuaren 14. artikuluan adierazitakoak izango dira. Horiek eremuaren harrera-ahalmena zehazterakoan

